

BANDOA

Herritar guztiei jakinarazi nahi dizuet azken hilabeteetan, Udaletxean kexa asko jasotzen ari direla herrigunean azaltzen ari diren txakur kakekin.

Alde batetik, jakinarazi nahi dizuet belardi partikularretan txakurrak ezin direla sartu, bertan kaka egin ezkeru, abereak ez dutelako belarrik jaten.

Bestetik, jakinarazi nahi dizuet, herrigunean, hau da, parkeetan, jardinetan, espaloietan agertzen diren txakur kakak, kutsagarriak direla, bai gure umeen osasunean, baita ere herria txukun mantentzeko asmoetan, herritar orok ez dugulako jasan behar txakur jabeen utzikerien ondorioak.

Horregatik, bando honen bidez, txakur jabeek kontzientziatu nahi diegu, Larraulgo herria txukun mantentzea.

Oraingo utzikeriak jarraitu ezkeru, jakinarazi nahi dizuet Larraulgo Udalak neurri zorrotzak hartzen hasiko dela

Besterik gabe, bando honetan eskatutakoa Larraulgo herriaren alde izango dela pentsatuz, agurtzen naiz.

Larraulen, 2008 apirilaren 15ean.

ALKATEA
Xabier Mujika Pagola